


INDUSTRIA-PRODUKZIOAREN INDIZEA. 2017KO MAIATZA

Euskal AEko industria-jarduerak % 3,2 egin zuen gora 2017ko maiatzean

Industria-ekoizpeneko indizeak % 2,6 gorakada izan du 2017ko lehen bost hileetan

Euskal AEko industria-ekoizpenak % 3,2 egin zuen gora 2017ko maiatzean, 2016ko hil beraren aldean, lan-egutegiko baldintza homogeenetan, Eustatek prestatutako datuen arabera. 2017ko lehen bost hileetako balantzea % 2,6ko hazkuntzarekin itxi da, 2016ko aldi beraren gainean.

Aurreko hilearekin alderatuta, 2017ko apirilarekin, Euskal AEko industria-ekoizpenak % 0,3 egin zuen behera, urtarotako ondorioak zuzendu ondoren.



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2017ko maiatzeko indizeak, 2016ko maiatzekoaren aldean, bilakaera positiboak izan ditu, industria-sektore handien artean. *Tarteko Ondasunek* % 5,5 egin dute gora, *Energiak* % 0,8, *Ekipoko Ondasunek* % 0,4 eta *Kontsumo Ondasunek*, orokorrean, % 7,5. Azken horien barruan, *Kontsumo Iraunkorreko Ondasunek* % 38,0 egin dute gora eta horiek zehazten dute igoera; izan ere, *Kontsumo Ez Iraunkorreko Ondasunek* % 2,5 egin dute behera.

2017ko maiatzeko hil arteko aldakuntza, 2017ko apirilaren gainean, positiboa izan da *Ekipoko Ondasunetarako* (% 0,1 egin dute gora) eta *Kontsumoko Ondasunetarako* (% 1,0 egin dute gora, orokorrean); horien artean, *Kontsumo Iraunkorreko Ondasunek* % 4,9 egin dute gora eta *Kontsumo Ez Iraunkorreko Ondasunek*, % 0,7. *Tarteko Ondasunek* % 0,2 egin dute behera, eta *Energiak*, % 1,6.

Euskal industrian pisu gehien duten sektoreen artean, 2017ko maiatzean, urte arteko aldakuntzak kontuan hartuta, hazkuntza esanguratsuenak dituztenak honako hauek dira: *Kautxua eta plastikoa*, % 7,8; *Garraio-materiala*, % 7,1; eta *Metalurgia eta produktu metalikoa*, % 3,8.

Ordea, beherakadak *Energia elektrikoaren*, *gasaren eta lurrunaren* sektorean izan dira (% 4,8ko urte arteko beherakada), bai eta *Zuraren*, *paperaren eta arte grafikoaren* sektorean (% 1,9ko beherakada) eta *Material eta ekipo elektrikoaren* (% 1,2 egin du behera) sektorean ere.

1. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	3,8
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-4,8
09 - Kautxua eta plastikoak	7,8
13 - Makineria eta tresneria	1,2
14 - Garraio-materiala	7,1
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	1,8
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-1,2
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-1,9

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Lurralde historikoen arabera, maiatzean Industria Ekoizpenaren Indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da hiru lurraldeetan. Bizkaian, % 5,0 egin du gora, Araban % 4,4 eta Gipuzkoan % 0,6.

Hilabeteen arteko aldakuntza-tasa, 2017ko apirilaren aldean, negatiboa izan da hiru lurraldeetan. Araban eta Bizkaian % 0,4 egin du behera bi kasuetan, eta, Gipuzkoan, % 0,1.

2. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2017ko Maiatza

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Mai2017/ Mai2016	A(Mai2017)/ A(Mai2016)(*)	Mai2017/ Api2017	Api2017/ Mar2017
Indize orokorra				
Euskal AE	3,2	2,6	-0,3	-1,3
Araba/Álava	4,4	3,6	-0,4	0,4
Bizkaia	5,0	5,2	-0,4	-2,6
Gipuzkoa	0,6	-0,6	-0,1	-0,7
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	7,5	4,2	1,0	2,0
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	38,0	19,1	4,9	7,0
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-2,5	-1,3	-0,7	-0,1
Ekipo-ondasunak	0,4	0,2	0,1	-2,7
Bitarteko ondasunak	5,5	5,0	-0,2	-0,9
Energia	0,8	-0,4	-1,6	-0,1

(*) 2017ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2016eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62